

Politikaren neurosia, neurosiaren politika

Neska batek hitz egin zidan harreman mingarrietara lotzeko zuen erraztasunaz: gizon eredu bat komeni ez dela ondotxo jakin, baina beti halako batekin topo egin, bai bitxia. Eta komeni denarekin, ezin biderik egin, hori alukeria. Bizitza, gizon kaltegarrien hurrenkera gisa antola daiteke, noria bailitzan. Inertzia, konpulsioa, errepikapena.

Inkontzientearen subjektuak gara, izan ere. “Pentsatzen ez dudanean lekuan, hantxe nago” zioen Lacanek. Portaerak geureak dira, sarri ez gara euren jabeak ordea. Geure motibo agerikoetatik harago, beste zerbaite gertatzen ari da beste nonbait. Beste leku horretako bizilagunak gara, horren susmo izpirik izan barik.

Errepikapenerako konpulsioak egiten du neurotikoa. Bizipen mingarriak errepikatzeke joera bitxia dugu espezie honetakook, askoren identitatea hortxe eraikitzeraino. Absurdua da oso: subjektuak ezin dio uko egin zenbait esperientzia “gozatzeari”, nahiz esperientziok traumatikoak izan. Inertzia, konpulsioa, errepikapena.

Fairbairn psikoanalistak tratatuak jasotako umeekin egin zuen lan. Harrituta ikusten zuen umeek euren guraso borrarroenganako azaltzen zuten atxikimendua, leialtasuna. Harremanean ez zegoen plazerrik, mina bai- zik, sufrimenduaren amaraun likatsua desio zuten ordea. Gurasoengandik aldendu eta objektu alternatiboak hautatu ordez, umeek sufrimendua hautatzen zuten konexio gisa. Nagusitan, zelan ez, besteen- gandik horixe itxaroten zuten: konexio mingarria.

Ahalmen miresgarria dugu esperientzia samin- garriari itsatsita bizitzeko. Hor badago espeziea sakon definitzen duen zer- bait. Fairbairnek esan zigun, Freud maisuari kontra eginez, libidoak ez duela plazerra bilatzen, ezpada objektua bera: besteekin konexioa bere horretan helburu da. Konexio mingarria baino mingarriagoa dela konexiorik eza, zelanbait.

Esaiozu neurotikoa oinazearen noria absurduak baduela alternatibarik; esaiozu laguna duzun neskari mina besterik ez diola ekarriko gizon horrek; esaiozu beste haren begici dariela zaintzaile onaren distira. Esaiozu, arren, baina nekez lortuko duzu ezer. Gaixoak ez baitu erraz uzten gaixotasuna. Ez du nahi.

Ez da masokismoa, ximplegia litzateke hori. Arrazoi sendoak ditu: neurosia eta honen sintomak bere izaeraren parte dira. Bera da gaixotasuna. Ez dago bizitzarik, ez dago errealitate- rik gaixotasunetik harago. Hortik harago, amildegiari egin behar zaio aurre.

Politikan, konexio mingarrietara pasa gara berriro. Nire begietara, ausardiaz gain intentzioa falta izan zaio Madrili. Eta beldurra agindu diogu elkarri: bizkartzainak nonahi, errepresioa nahi beste. Inertzia, konpulsioa, errepikapena.

Poloniar batek hemeretzi bat urte koman igaro eta, esnatzean, dena aldatuta aurkitu ei du: erregimen komunistan lokartu zen eta kapitalismo globalean esnatu da. Euskalduna izan balitz oster, auzi politikoa ez beste guztia aurkituko zukeen aldatuta.

Hemen, neurotikoa antzera, badirudi portaera patroia bati itsatsiak gaudela, inertzia automatari josiak. Norbere buruaren kalterako bada ere, hortxe, temati.

Hemen, neurotikoa antzera, badirudi portaera patroia bati itsatsiak gaudela, inertzia automatari josiak. Norbere buruaren kalterako bada ere, hortxe, temati. Eta leku guztietan dago portaera horren alerik: borroka armatua, estatu- biolentzia, zein gestio- gintza autonomista.

Han-hemenka barreiatu- rik ale horien beldur- rik handiena desioa errealitate bihurtzea ote den: arerioa behin betiko desagertzea. Bertan sostengatzen baitira.

Finean, aleok han-hemenka nagusi direneko zikloari ekin zaio berriro: aldaketa baino inportanteagoa da identitatearen auto- produkzioa, errepikapena, inertzia.

Saihestu da auto- transformazioa. Saihestu da amildegia: identifikazio- erreferentzien galera, identitatearen disoluzioa.

Inertzia, konpulsioa, errepikapena. ■



KARLOS CORBELLA



Hemen, neurotikoa antzera,
badirudi portaera patroia bati
itsatsiak gaudela, inertzia automatari
josiak. Norbere buruaren kalterako
bada ere, hortxe, temati

